# Pasión y provocación
Pasioa eta probokazioa

**Alban Gerhardt**
Violonchelo/Biolontxeloa

**Pablo González**
Director/Zuzendaria

TEMPORADA
DENBORALDIA
23-24



Orquesta Sinfónica de Navarra
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA

ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA
NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

CICLO | ZIKLOA
# Fundación Baluarte Fundazioa



CLÁSICA | KLASIKA

# Sondra Radvanovski

## Soprano

Martes 9 Enero
Urtarrilak 9 asteartea
Hora 19:30

Gobierno de España · Ministerio de Cultura · inaem Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música
Fundación Baluarte Fundazioa
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
Fundación CajaNavarra
Mondragon Humanity at Work · Finanzas Industria Distribución Conocimiento
Fundación "la Caixa"
El Corte Inglés
Autopistas de Navarra





**Alban Gerhardt**
Violonchelo/Biolontxeloa

**Pablo González**
Director/Zuzendaria

## Primera parte / Lehen zatia

### Dmitry Shostakovich (1906 – 1975)

*Sinfonía n. 9 en Mi bemol Mayor, op. 70* [27 ´]

I. Allegro
II. Moderato
III. Presto
IV. Largo
V. Allegretto

## Segunda parte / Bigarren zatia

### Antonín Dvořák (1841 - 1904)

*Concierto para violonchelo en si menor, op. 104* [40 ´]

I. Allegro
II. Adagio ma non troppo
III. Finale: Allegro moderato

# Notas|Notak

Los tres años que **Antonin Dvořák** pasó en Estados Unidos, entre 1892 y 1895, dieron algunos de los frutos más populares de su carrera compositiva. Junto a la celebrada *Sinfonía del Nuevo Mundo y el Cuarteto Americano,* el checo ofreció al mundo un *Concierto para violonchelo* que se convirtió en obra cumbre del repertorio para este instrumento. En él confluyen la tradición musical del Romanticismo centroeuropeo, enraizado en las formas clásicas, con la esencia de la música tradicional bohemia. Dvořák había asistido a un concierto del virtuoso violonchelista Victor Herbert y quedó impresionado por la capacidad sonora que mostró el solista en los registros agudos demostrando las posibilidades expresivas y sonoras del violonchelo para sobresalir entre la potencia de la orquesta romántica.

El borrador de la partitura estaba terminado cuando Dvořák y su familia abandonaron Estados Unidos para regresar a su patria checa, en la primavera de 1895, y vio la luz en Londres, el 19 de marzo del año siguiente, con Leo Stern al violonchelo y el propio Dvořák a la batuta. Dedicado a Hanus Wihan, famoso violonchelista checo, continúa hoy cautivándonos. Sigue una estructura clásica en tres movimientos, el primero de ellos *Allegro* según la forma de sonata; el segundo *Adagio ma non troppo* con la tradicional forma de *Lied;* y el último *Allegro moderato* con forma de rondó. Es memorable su comienzo en el resgistro grave con el apasionado motivo desarrollado por la orquesta, que expone también el segundo tema, hasta que el violonchelo irrumpe su canto contundente, elaborando variaciones melódicas de gran poder expresivo con las que recorre todos los registros del instrumento.

Cuando Dvořák componía el segundo movimiento llegaron noticias de la enfermedad de su cuñada Josefina, de quien había estado enamorado muchos años atrás. Para ella había compuesto no pocas canciones en su juventud, y una de ellas, *Lasst mich allein*, de los *Lieder* op. 82, fue citada en el tema central del movimiento como homenaje a Josefina, que falleció al mes del regreso a Praga. Este movimiento transmite una emoción fuera de lo común, entre la intimidad y la añoranza, el amor de juventud y la entrañable amistad. Todos los temas del concierto se encadenan a través de un estribillo ligero y de carácter apasionado en el Rondó final. Durante su composición surgió un desencuentro entre Wihan y el compositor; el violonchelista quería incluir una cadencia tradicional al final, pero Dvořák optó por incluir una cita a la canción preferida de su cuñada Josefina a modo de coda, y concluir en modo mayor, con luminosidad y esperanza.

El comprometido lugar que ocupó **Dimitri Shostakovich** entre la defensa de su personalidad artística y las exigencias del régimen soviético es especialmente notorio en su impresionante catálogo sinfónico. En sus sinfonías, dice G. Vinay, "*las historias del individuo y las de la nación tienden a confundirse*". La Novena no resultó ser la obra propuesta por Stalin para celebrar el final de la Guerra y la sombra de la censura se asomó cuando en lugar de la música esperada, triunfal y épica, se escuchó una obra sencilla y ligera, irónica y fresca. Tras su estreno, el 3 de noviembre de 1945, en San Petersburgo, Shostakovich sufrió la *incomprensión* de la Unión de Compositores, que calificó su *Anti-Novena* como obra *formalista* y atacó al compositor de *tomarse unas vacaciones de sus obligaciones con el Estado.* Alex Ross describe el intenso debate que suscitó la partitura en la Unión Soviética, por su inesperada *sátira y melancolía en cinco movimientos.*

La Novena de Shostakovich llegó a prohibirse en el conocido como *Decreto Histórico* del 10 de febrero de 1946. El propio compositor había escrito sobre ella: "*Es una pieza alegre. A los músicos les encantará tocarla y los críticos se deleitarán con ella [haciéndola pedazos]*". Su Neoclasicismo es evidente, su inspiración en los clásicos también, y respira una burlona alegría que pudo ser confundida con frivolidad. La orquestación es magnífica y repleta de contrastes entre instrumentos, como el juego del flautín y la grave presencia del trombón, con ritmos frenéticos que reflejan un sentido del humor contundente. El clarinete solista del *Moderato* entona una melodía de carácter orientalizante que *corta* por unos momentos, la alegría, y aporta misterio y melancolía, también presente en el tema del fagot del cuarto movimiento. Algunos pasajes recuerdan a **Mahler**, otros a **Haydn**, pero la genialidad de Shostakovich, su inconfundible sello personal, marcan la originalidad de esta provocadora sinfonía.

**Mar García**

**Antonin Dvořákek** 1892tik 1895era Estatu Batuetan igaro zituen hiru urteek bere konposizio-ibilbidean ondutako fruiturik ezagunenetako batzuk eman zituzten. Izan ere, *Mundu Berria sinfonia* ospetsuarekin eta *Kuarteto Amerikarra*rekin batera, txekiarrak munduari eskainitako *Biolontxelorako kontzertua* instrumentu horretarako errepertorioaren lan gorena izan zen. Harengan uztartzen baitira Europako erdialdeko Erromantizismoaren musika-tradizioa –forma klasikoetan sustraitua– eta Bohemiako musika tradizionalaren funtsa. Dvořák, hain zuzen, Victor Herbert biolontxelo-jole birtuosoaren kontzertu batera joana zen eta harritua gelditu zen, bakarlariak erregistro altuetan erakutsitako soinu-gaitasunarekin, eta ohartu zen biolontxeloak sekulako aukerak zituela adierazpenerako eta soinuetarako, orkestra erromantikoaren potentziaren artean nabarmentzeko.

Azken partituraren zirriborroa jada bukatua zegoen, Dvořák eta senideak 1895eko udaberrian Estatu Batuetatik lekutu eta sorterrira – Txekiara– itzuli zirenean, eta Londresen ikusi zuen argia hurrengo urteko martxoaren 19an. Leo Sternek biolontxeloa jo, eta Dvořákek berak kontzertua zuzendu zuen. Hanus Wihan biolontxelo-jole ospetsuari eskainita, egun oraindik ere liluragarria zaigu. Hiru mugimenduko egitura klasikoa du: lehena *Allegro* da, sonata formaren arabera; bigarrena, berriz, *Adagio ma non troppo*, *Lied* forma tradizionala duela; eta azkena, *Allegro moderato*, rondo formarekin. Gogoangarria da hasiera erregistro baxuan, orkestrak garatutako motibo grinatsuarekin; orkestrak bigarren gaia ere azaltzen du, harik eta biolontxeloak bere kantu irmoa zabaltzen duen arte, adierazpen-indar handiko melodia-bariazioak onduz eta, bariazio horien bidez, instrumentuaren erregistro guztiak zeharkatuz.

Dvořák bigarren mugimendua konposatzen ari zela, koinata Josefinaren gaixotasunaren berri izan zuen. Musikagilea Josefinaz egon zen maitemindua aspaldi-aspaldian. Hain zuzen, kantu franko konposatu zituen harendako gaztaroan eta, haietako bat, hots, *Lasst mich allein*, *Lieder* op. 82 piezetakoa, mugimenduaren gai nagusian aipatu zen Josefinaren omenez, zeina zendu baitzen konpositorea Pragara itzuli eta hilabetera. Mugimendu horrek ohi ez bezalako zirrara eragiten du, badu intimitatetik eta malenkoniatik, gaztaroko maitasuna eta adiskidantza amultsua agerian utzita. Kontzertuko gai guztiak errepika arin eta grinatsu baten bidez daude kateatuak bukaerako rondoan. Partitura konposatzen ari zela, desadostasuna sortu zen Wihanen eta konpositorearen artean; izan ere, biolontxelo-joleak ohiko kadentzia bat sartu nahi zuen bukaeran. Dvořákek, ordea, koinata Josefinaren abesti gogokoenaren aipamen bat sartzea hobetsi zuen, dena modo maiorrean amaitzeko, argitasunez eta itxaropenez.

**Dimitri Shostakovitx** estu eta larri ibili zen bere nortasun artistikoaren defentsaren eta erregimen sobietarraren eskakizunen artean, eta hori bereziki da nabarmena bere sinfonia-lan ikusgarrietan. G. Vinayren arabera, haren sinfonietan "*gizabanakoaren eta nazioaren istorioek nahastera jotzen dute".* Bederatzigarrena ez zen gertatu Stalinek gerra amaiera ospatzeko proposatu zuen lana, eta zentsuraren itzala agertu zen, noiz eta espero zen musika arranditsu eta epikoaren ordez, lan soil, arin, ironiko eta freskoa entzun zenean. 1945eko azaroaren 3an San Petersburgon estreinatu eta gero, Shostakovitxek Konpositoreen Batasunaren *onespenik eza* jaso zuen. Erakunde horren arabera, izan ere, hura *Anti-Bederatzigarrena* zen eta lan *formalista*. Gainera, konpositoreari leporatu zion *oporrak hartu izana Estatuarekiko betebeharrei dagokienez*. Alex Rossek azaldua du zer-nolako eztabaida handia eragin zuen partiturak Sobiet Batasunean: hura ustekabeko *satira eta malenkonia* izan zelako *bost mugimendutan*.

Shostakovitxen Bederatzigarrena debekatu ere egin zen 1946ko otsailaren 10eko *Dekretu Historiko* delakoaren bidez. Konpositoreak berak hauxe idatzia zuen sinfoniaz: *pieza alaia da. Musikariei izugarri gustatuko zaie jotzea, eta kritikariek lanarekin gozatuko dute [*huraxe maiseatuz*].* Agerikoa da haren Neoklasizismoa, baita klasikoengan inspiratu izana ere, eta badario arinkeriarekin nahastu zitekeen alaitasunezko iseka. Orkestrazioa bikaina da eta kontrastez beterikoa instrumentuen artean, hala nola piccoloaren jokoa eta tronboiaren presentzia baxua, umore sen irmoa islatzen duten erritmo zorabiagarriekin batera. *Moderato*ko klarinete bakarlariak ekialdeko izaera duen melodia bat jotzen du, une batzuetan alaitasuna *mozten* duena, misterioa eta malenkonia dakartzala, laugarren mugimenduko fagotaren gaian ere ageri dena. Pasarte batzuek **Mahler**, eta beste batzuek **Haydn**, ekartzen digute gogora, baina Shostakovitxen jenialtasunak eta haren ezaugarri pertsonal nahastezinak markatzen dute sinfonia probokatzaile horren originaltasuna.

# Biografías | Biografiak

## Alban Gerhardt
Violonchelo / Biolontxeloa

Tras iniciar su carrera con la Filarmónica de Berlín y Semyon Bychkov en 1991, se ha ganado el reconocimiento como uno de los violonchelistas más versátiles, actuando en conciertos de gran repertorio y, al mismo tiempo, como solista de referencia para los compositores contemporáneos. Entre sus colaboraciones con orquestas destacan el Concertgebouw de Ámsterdam, la Tonhalle-Orchester de Zurich, la Orquesta Nacional de Francia y las orquestas sinfónicas de Cleveland, Filadelfia, Boston y Chicago.

Bere ibilbidea Berlingo Filarmonikoarekin eta Semyon Bychkovekin 1991n hasi eta gero, biolontxelo-jotzailerik moldagarrienetako bat izatea aitortu zaio; izan ere, errepertorio handiko kontzertuetan aritzen da, eta, aldi berean, erreferentziazko bakarlaria da konpositore garaikideendako. Orkestrekin egindako lankidetzen artean, honakoak dira nabarmentzekoak: Amsterdamgo Concertgebouw, Zuricheko Tonhalle-Orchester, Frantziako Orkestra Nazionala, eta Clevelandeko, Filadelfiako, Bostongo eta Chicagoko Orkestra Sinfonikoak.



Fotografía: Kaupo Kikkas

## Pablo González
Director/ Zuzendaria

Reconocido como uno de los directores más versátiles y apasionados de su generación, transmite gran inspiración tanto a orquestas como a públicos de todo el mundo. Ha sido director titular de la Orquestra Simfònica de Barcelona i Nacional de Catalunya, director principal invitado de la Orquesta Ciudad de Granada y director asistente de la London Symphony Orchestra. En la actualidad es director titular de la Orquesta Sinfónica de Radio y Televisión Española y asesor artístico de la Orquesta y el Coro RTVE.

Bere belaunaldiko zuzendaririk moldagarrien eta sutsuenetako bat izatea aitortzen zaio, eta inspirazio handia transmititzen die mundu zabaleko orkestrei eta publikoei. Orquestra Simfònica de Barcelona i Nacional de Catalunya-ko zuzendari titularra izan da, Granada Hiriko Orkestrako zuzendari nagusi gonbidatua eta London Symphony Orchestra-ko zuzendari laguntzailea. Gaur egun, Radio y Televisión Española-ko Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularra da, bai eta RTVE Orkestrako eta Abesbatzako aholkulari artistikoa ere.



Fotografía: Benjamin Ealovega

OSN | NOS

**Concertino Invitado/ Kontzertino Gonbidatua**
Lauren Roth

**Ayuda de Concertino/ Kontzertinoa laguntzailea**
Anna Siwek

**Violines I/I Biolinak**
Daniel Menéndez*
Malen Aranzábal
Catalina García-Mina
Inés De Madrazo
David Pérez
Enrico Ragazzo
Nikola Takov
Aratz Uria
Miguel Luis Losada ®

**Violines II/II Biolinak**
Maite Ciriaco*
Anna Radomska*
David Andreu
Fermín Ansó
David Cabezón
Lourdes González
Angelo Vieni
Sergiu Ionescu
José Ignacio López ®
Javier Montañana ®

**Violas/Biolak**
Carolina Úriz*
Fco. Javier Gómez**
Víctor Muñoz
Robert Pajewski
José Ramón Rodríguez
Irantzu Sarriguren
Malgorzata Tkaczyk
Alicia Álvarez Lorduy ®

**Violonchelos/Biolontxeloak**
David Johnstone*
Tomasz Przylecki**
Carlos Frutuoso
Aritz Gómez
Dorota Pukownik
Lara Vidal

**Contrabajos/Kontrabaxuak**
Piotr Piotrowski*
Daniel Morán*
Gian Luca Mangiarotti
Xavier Boixader ®

**Flautas/Txirulak**
Xavier Relats*
Ricardo González**
Nicolás Hernández ®

**Oboes/Oboeak**
Juan Manuel Crespo*
Jesús Ventura*

**Clarinetes/Klarineteak**
Fco. Javier Inglés*
Elisa López*

**Fagotes/Fagotak**
Ferrán Tamarit*
Alberto Sáez ®

**Trompas/Tronpak**
Julián Cano*
Aritz García de Albéniz
Jessica Rueda*
Marc Moragues

**Trompetas/Tronpetak**
José Manuel Pérez*
Carlos Gomis*

**Trombones/Tronboiak**
Santiago Blanco*
Mikel Arkauz**
Santiago Díaz ®

**Tuba/Tuba**
Alfonso Viñas ®

**Timbales/Tinbalak**
Javier Odriozola*

**Percusión/Perkusioa**
Jaime Atristain ®
Santiago Pizana ®

* Solista/Bakarlaria
** Ayuda Solista/ Bakarlaria Laguntzailea
® Contratación temporal/ Aldi baterako kontratazioa

# Orquesta Sinfónica de Navarra
# Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Calle Sandoval 6
31002 Pamplona-Iruña
948 229 217
www.orquestadenavarra.es
info@orquestadenavarra.es


OrquestaSinfonicaDeNavarra
@orquestanavarra
@orquestasinfonicadenavarra
youtube.com/OrquestaSinfonicadeNavarra

Recibe nuestras novedades en tu Whatsapp.
Envía “alta” al +34 636 86 32 57


FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA

ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA
NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
FUNDACIÓN CAJANAVARRA
Fundación "la Caixa"
AUTOPISTAS DE NAVARRA
El Corte Inglés
MONDRAGON HUMANITY AT WORK Finanzas Industria Distribución Conocimiento

Este programa se ha impreso utilizando papel reciclado
Eskuko programa hau paper birziklatuan inprimatu da

DL.NA 585-2015